STEE-EILAS

Eilaskide ordezko hori:

Abuztuaren 17tik 23ra, kidego guztietako irakasle ordezko guztiok parte hartu beharko duzue “esleipen telematiko” ditxosozko horretan datorren urterako plaza lortzeko.

Hainbat gauza argitaratu ditu Hezkuntza Sailak bere web.ean: plazak aukeratzeko erabili behar duzuen aplikazio informatikoaren gida, finkatzeko eskubidea duten ordezkoen zerrenda eta, orain, gutxienezko puntuazioa prozesuan derrigorrez parte hartzeko.

Beraz, kidego bakoitzean, puntuazio horretatik gora duten guztiok esleipen telematikoa bete beharko dute. Puntuazio berdina edo txikiagoa dutenek ez dute nahitaez parte hartu beharko baina egin dezakete modu boluntarioan, hala nahi izanez gero.

Hauexek derrigorrez parte hartzeko puntuazio-mugak:

| Puntuak | Taldea |
|---|---|
| 15,00 | **1. Maisu- maistrak** |
| 12,00 | **2. Bigarren hezkuntza eta EOI** |
| 15,00 | **3. Lanbide heziketako irakasle** |
| 15,00 | **6. Arteen irakaskuntza** |
| 15,00 | **7. Musika irakaskuntza** |

Horrez gain, atera dira ere birbaremazioaren ondorioz sortutako ordezko guztien “Laburpen-fitxa”, lurraldeak, lanaldi motak, puntuak eta abarreko informazioarekin. Irakasle.net-en bidez konsultatu daitezke.

Ongi izan

2011-08-12

**STEE-EILAS**